



LORATU.COM

## Merkatuko postua, Interneten



Garazi Zabaleta  
@tirikitran

“Baratzearen bueltan dabilen familia izan da gurea betidanik”, azaldu digu Arrate Imazek, Zubietako (Gipuzkoa) Amere Goikoa baserriko alabak. Loratu izenarekin sortu berri duten webgunearen arduradun nagusia da. Argi du, ordea, familiako lantaldearen parte direla bera eta sareko gune jaioberria. Nortzuk diren lantaldeko beste kideak? Aita eta anaia. “Webgunea izan baino lehenago, anaiak baratzea lantzen zuen eta gurasoek Donostiako merkatuetan saltzen zituzten produktuak”. Salmenta bide horrek izan zitzakeen mugez jakitun, bestelako aukerarik ere bazela ohartu zen Imaz. Eta hari horri tiraka iritsi da Loratu.

**Egun osoan eta leku denetara zabalik** Merkatuko ordutegietan, goizez soilik, jende askok ezin izaten du erostera joan. Donostiako merkaturan ibiltzen ziren kanpoko turista askok ere beren produktuak eskuratzeko beste moduren bat eskatzen zieten. “Hortik atera zen webgunea irekitzeko proposamena”, kontatu digu Imazek. Euskal He-

rrian nahiz mugaz gaindi dute beren produktuak banatzeko asmoa. Webguneak martxan egun bakarra daraman honetan, Madril aldetik eskaera jaso dute jadanik...

### Bakoitza bere alorrean

Familiako kide bakoitza bere esparruan buru-belarri aritzen bada ere, elkarri laguntzea nahi gabe ematen da: “Anaiak porruak aldatu behar baditu, familia osoa joaten gara baratzerara. Berdin aitak merkaturan laguntza behar duenean”. Familiako beste ahizpa ere, kate horretan lan zehatzik izan gabe, denean laguntzen aritzen da.

Loraturen inguruan galdetuta, “proiektu” hitza handi xamar egiten zaiola dio Imazek: “Zerbait naturala izan da prozesua, erdi nahi gabe aterra da. Gutako bakoitza pausoz pausoz joan da aurreraka”. Onartu du, hala ere, pixkanaka proiektu izaera hartzen doala kontua. Ez gara ohartzen maiz, gure eguneroko jardunetik atera ditzakegula ideia berriak eta loratu proiektu txikiak. ■



## ALTZAN PORRU

### Irribarrearen baratzea

Marrazkilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,  
“mattin” Martiarena, Ainara Azpiazu,  
Antton Olariaga, Zaldieroa,  
Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



## BIZI BARATZEA

### Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: [www.argia.eus/bizi-baratzea](http://www.argia.eus/bizi-baratzea)  
@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545 · [www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda)

## AURKEZPEN HITZALDIAK

### Irailak 23: Munitibar

Lekua eta ordua zehazteke.

### Irailak 28: Elgoibar

Izarra elkarteak antolatuta.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

[sustapena@argia.eus](mailto:sustapena@argia.eus) · ☎ 943 371 545